Euskara eta Hezkuntza

2021EKO URRIAN HASI ETA 2023KO MAIATZERA ARTE IRAUNGO DUEN "*ERREFORTZU SAIOAK*" ZERBITZUAREN ESLEIPENA ARAUTUKO DUEN KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA
(2021-00587 espedientea)

1.- Xedea

Baldintza-agiri honen xedea euskararen jabekuntzan laguntzeko jolas-giroko saioak kudeatu eta antolatzeko entitate bat kontratatzea da. Udalak eskaintzen duen "Errefortzu Saioak" zerbitzua publizitaterik gabeko prozedura ireki bidez esleituko da ondoren zehazten diren baldintza teknikoen arabera.

2.- Zerbitzuaren helburua

Eskola orduetatik kanpo, jolas bidez eta modu ludikoan, euskara lantzen, trebatzen eta erabiltzen laguntzea da Errefortzu saioen helburu nagusia. Aldi berean, aurreiritziak eta estereotipoak alde batera utzita, ikasleen arteko harremanak berdintasunean eta modu inklusiboan lantzea ere bada saio hauen helburua. Era horretan, azken urteotan hasitako bideari jarraipena eman nahi zaio.

3.- Zerbitzuaren hartzaileak

Zerbitzu honen hartzaileak Elorrioko ikastetxeetan matrikulatuta dauden 5-16 urte bitarteko ikasleak dira, adinaren arabera eta zikloka sailkatuta.

4.- Zerbitzuen prestazioa

Egungo pandemia egoerak ratioari zuzen eragiten dionez, eta zerbitzua eskaintzeko udalak gela bi baino ez dituenez erabilgarri, lehenengo urtean plaza-kopurua mugatua eta itxia izango da. Hau da, ezin izango dute saio hauetan parte hartu interesa duten ikasle guztiek. Aurrerantzean, eta araudiak ahalbidetzen duen neurrian, aztertu eta baloratu egingo da ratioa gehitzea.

4.1.- Zerbitzua eskaintzeko lekua, ratioak eta asteko egunak:

Lekua: lehenengo urtean, Goieta 5 bis-en dagoen Kirol Etxeko bi gela erabiliko dira. Aurrera begira aztertu egingo da lekuaren egokitasuna eta horren arabera egingo da aukeraketa.

Ratioak: egungo egoera pandemikoa dela eta, 10 laguneko monitore bat da indarrean dagoen araudia. Hamar laguneko talde bakoitzeko monitore bat.
Aurreko guztia kontuan hartuta ikasle kopurua 80ra mugatuko da. Egunean 10 ikasleko talde bi, astean lau egunetan, guztira 80 lagun zortzi taldetan banatuta.

Egunak astean: saioak astelehenetik ostegunera bitartean eskainiko dira, biak barne.

Egutegia: saioak urte bakoitzeko urriaren lehenengo astean hasi eta hurrengo urteko maiatzaren azken astean amaituko dira. Kontratua sinatu baino lehen egutegia zehaztuta egongo da; halere, egutegia eta ordutegia aldatu ahal izango dira egitarau berezi edota ekintza konkreturen bat burutzeko. Edozein kasutan, aldaketak udalarekin adostu beharko dira.

Hartzaile edo ikasle kopurua: ikasleen zerrenda ikastetxe bakoitzeko arduradunek osatu eta aurkeztuko dute udaleko Euskara Zerbitzuan. Taldeak euskara sailean osatuko dira zerbitzua eskainiko duen entitatearekin elkarlanean eta, ondoren, ikastetxeetako arduradunei jakinaraziko zaie zeintzuk izan diren aukeratuak eta zeintzuk geratu diren kanpoan. Irakasleei eta gurasoei emango zaie aukeratuen eta baztertuen berri

Ikasle-kopuruak 80ko gehinezko kopurua gaindituko balu, kanpoan geratu direnen artean itxarote-zerrenda osatuko litzateke, bajarik gertatuz gero horien lekua betetzeko, edo ratioaren kopurua gehitzen den kasuetarako. Taldeak eratzeko eskumena udaleko Euskara Zerbitzuarena izango litzateke eta horrela onartu beharko dute interesatu guztiek.

4.2.- Kontratuaren iraupena eta prezioa

Iraupena: kontratuaren iraupena urte bikoa izango bada ere, beste urte bi luzatu ahal izango da. Kontratua sinatzen den egunean hasiko da zerbitzua eskaintzen.

Prezioa: lau urteko zerbitzuaren gehiengo prezioa 64.000 euro izango da BEZa barne, urte bakoitzeko 16.000 euro BEZa barne. Kopuru hori aurkeztutako entitateek hobetu egin ahal izango dute aurkeztutako eskaintzetan. Dena den, esleipenaren likidazioa doitu egingo da eta azken kitapena talde edo begirale kopuruaren arabera egingo da izandako gastu guztiak justifikatu eta gero. Prezio barruan ez da sartuko material didaktikoaren erosketarik. Eskaintza ekonomikoarekin batera giza-baliabideen eta kudeaketa zein zerbitzuarekin zerikusia duten gastu-proposamenak aurkeztuko dira.

4.3.- Jarduera zehatzak

Zerbitzuaren prestazioak ondoko jarduera zehatzak hartuko ditu bere baitan:

- Ikasleen euskararen komunikazio eta ulermena hobetzera bideratutako programa gauzatzea, modu ludiko eta didaktiko batez.
- Ikasturte osorako programazioan zehaztutako eguneroko ekintzak gauzatzea eta ekintza berriak proposatzea beharren arabera.
- Ekintzen eta ikasleen garapenaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Euskara indartzeko saioak eskaintzeko udalak utzitako espazioa zaintzea eta ekintzari hasiera eman aurretik aurkitu bezala uztea.

- Covid-19a dela eta, protokoloa zehaztea eta zaintzea.
- Antolaketa, funtzionamendu eta jarraipen-lanak egitea, koordinazio-zereginak burutuko dituen pertsonarekin batera.
- Udalak beharrezkotzat edo egokitzat hartzen dituen programekiko koordinazioa eta lotura izatea zerbitzua eskaintzen duen entitatearekin.
- Memoriak, txostenak eta parte-hartze eta jarraipen fitxak egitea.
- Jardueretan genero-ikuspegia txertatutako da: ez da erabiliko eduki sexistako materialik, genero-estereotipoak eta rolak saihestu egingo dira eta metodologiak, nesken eta mutilen parte hartzea orekatua sustatuko du; komunikazioa ez-sexista eta inklusiboa izango da; aukera berdintasuna eta tratu berdina bermatuko da; ez dira portaera sexistarik edo/eta homofoborik onartuko, eta hala agerian utziko da beti; behar denean neskekiko ekintza positiboak planifikatuko dira; behar diren neurri guztiak hartuko dira genero eta sexu diskriminazioak gainditzeko.

4.4.- Udalarekin koordinazioa eta zerbitzuen ebaluazioa

- Taldeak Euskara Zerbitzuak emandako ikasle-zerrendan oinarrituta eratuko dira.
- Ikasturte osoko programazioa zehaztu beharko da
- Euskara teknikariekin eta ikastetxeetako arduradunekin elkarlanean egingo dira zerbitzuaren eta programaren jarraipena, ebaluzioa eta abar. Urtean zehar gutxienez hiru koordinazio bilera deituko dira, oporraldi bakoitzeko amaieran edo hasieran.
- Jarraipen-txostenak aurkeztuko dira aldian-aldian, jardueraren egoeraren berri eman. Amaieran ikasturteko memoria zehaztua aurkeztuko da.
- Balorazioa egin eta hurrengoaren egitaraua eta proposamenak aztertuko dira bertan. Informeak euskaraz jasoko dira eta txostenak genero-ikuspegia kontuan hartuta egingo dira: pertsonen datuak sexuaren arabera edo bereizita bilduta eta dagozkien genero-aldagaiak kontuan hartuta aztertuko dira.
- Hezkuntza eta Euskara batzordeak egingo du zerbitzuaren jarraipena. Hala ere, udaleko beste sail batzuekin (kultura, ingurumena, berdintasuna...) elkarlana bultzatuko da.

4.5.- Ebaluaketa-sistema.

Ikasturtean zehar haurren behaketa egingo da, behaketa honetan kontuan hartuko dira: jarrera, begirale eta partaideen arteko harremanak, partehartzea, autonomia maila,

hizkuntza gaitasuna, ulermena eta ahozkotasuna besteak beste.

Behaketa-txostena euskara sailera bidaliko da, eta ikastetxeetako arduradun bakoitzari berari dagokion txostena bidaliko zaio urtean hirutan, oporraldi bakoitza baino lehenago.

Aukera egongo da guraso edo tutore guztiei inkesta bat banatzeko ikasturte bukaeran asebetetze-maila ezagutzeko.

Entitate arduradunak, ikasturtearen amaieran, ikasturte osoko memoria aurkeztuko du Euskara Zerbitzuan hurrengo ikasturterako proposamenak jarriko dituena.

5. Giza baliabideak eta baliabide materialak

5.1.- Instalazioak eta ekipamenduak

Baliabide materialei dagokienez, udalak lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko ditu. Funtzionamendu zein mantentze gastuak (garbiketa, argindarra, ura...) udalaren pentzura izango dira, ez ordea, material didaktikoaren gastua.

Instalazioak eta bertako materiala ondo zaindu beharko dira, bitarteko egokiak erabilita.

5.2.- Giza baliabideak

Zerbitzuak modu egokian eskaini ahal izateko, esleipendunak lantalde egoki bat jarriko du. Zerbitzua pertsona espezializatuak eskainiko dute, eta hauetako bat zerbitzuaren koordinatzailea izango da.

Zuzendaritzan edo/eta koordinazio lanetan, ekintza positibo bezala, emakumea lehenetsiko da.

Begiraleek, aisialdian edota haurtzaroan zein gazteria eta hezkuntza, animazio soziokultural, hezkidetza eta gizarteratze alorretan prestakuntza espezifikoa izan beharko dute, eta aipatutako alorretan lan eskarmentua. Curriculum-ak eskatuko dira.

5.3.- Entitatearen betebeharrak eta begiraleen perfila:

Entitateak zerbitzua modu egokian eman beharko du kontratuaren xedea osatzen duten baldintza guztiak betez. Talde bakoitzaren ardura hezitzaile/dinamizatzaile batek hartuko badu ere, hezitzaile/dinamizatzaileez gain egitasmo osoa koordinatuko duen arduraduna ere beharrezkoa izango da; hori horrela, entitateak koordinatzailea nor den jakinaraziko udaleko arduradunari.

Kontratuaren xedea, euskara lantzea eta hobetzea bada ere, emakumeen eta gizonen berdintasunean eta modu inklusiboan eskaini beharko da zerbitzua. Zerbitzua euskaraz eskainiko denez, lantaldeko partaide guztiek euskara ondo menperatu beharko dute. Hori ziurtatze aldera C1 euskara gaitasun agiria eskatuko da, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera. Era berean, begirale titulua eta sexuaren

ziozko bereizkeriagatik zigor administratibo edo penalik jaso ez duenaren agiriak aurkeztu beharko dira.

6.- Kontratua berraztertzeko eta moldatzeko aukera

Jendearen intereseko arrazoiak daudenean, esleitu den zerbitzuaren ezaugarriak aldatu ahal izango dira.

Zerbitzua hobetzeko, handitzeko, edo zerbitzuaren kostua murrizteko, kontratua aldatzeko proposamenak egin ahal izango dira eta ondo iritziz gero gauzatu ere egingo da.

7.- Zerbitzuaren jarraipena

Udalak zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuskatu ahal izango ditu, betebeharrak betetzen diren egiaztatzeko.

Administrazioak zerbitzua kanpotik ikuskatzearekin batera, esleipendunak zerbitzua etengabe ikuskatu beharko du bere aldetik.

8.- Esleipenerako irizpideak:

- **Eskaintza ekonomikoa: 51 puntu**

- **Esleipenerako balorazio subjetiboa: 49 puntu**

Balorazio subjetiboa era honetan puntuatuko da

1. Proiektuaren oinarri teorikoa eta helburuak: 24 puntu

a) Jarduera hezkuntza-sistema konbentzionalera hurbiltzea eta nolabait harekin lotzea:
(8 puntu).

b) Marko teorikoaren, helburu zehatzen eta proiektuan proposatzen diren ekimenen arteko koherentzia: (8 puntu).

c) Zerbitzuaren erabiltzaileen adin-tarteetarako edo talde bakoitzarentzat planteamendu zehatzak egitea. (8 puntu).

d) Proiektu osoan genero-ikuspegia txertatzea, hau da, justifikazioan, helburuetan,

jardueretan, metodologian eta ebaluazio-adierazleetan. Proiektuaren helburuarekin lotuta dagoenez ezinbesteko baldintza da eta horregatik ez da puntuatuko.

2. Lan-metodologia: 20 puntu.

a) Metodologia eta ekintza-plana: ideia eta jarduera zehatzak baloratuko dira, eta horien egokitasuna ere: parte-hartzea, sormena, informazioa, orientazioa...: (10 puntu)

b) Plangintzarako, ebaluaziorako eta koordinaziorako maila bakoitzaren planteamendu zehatza: (5 puntu)

c) Proposatutako hobekuntzak: (5 puntu)

3. Aurkeztutako proposamena udalerriaren errealitate demografikora eta soziologikora egokitzea: 5 puntu

a) Tokiko errealitatearen ezagutza eta elkarlanerako proposamenen lanketa.

b) Herritarren beste ekimen batzuetan esku hartzeko edo laguntzeko proposamen zehatzak aurkeztu; hots, beste eragile batzuekin antolatutako jarduerak.

Gutxienez 60 puntu lortu beharko dira prozeduran parte hartzen jarraitu ahal izateko.

Elorrion, 2021eko ekainaren 22an

Idoia Buruaga Barcena
ALKATEA